

# **Gasteizko artistek, CEAR erakundeak eta Udalak errefuxiatuen egoeraz hausnartzera gonbidatzen dituzte herritarrak, sorkuntzaz baliatuz**

**Montehermosok “Babesik Gabe-Sin Refugio” partaidetza-proiektua hartuko du, eta horren amaieran erakusketa egingo da, abenduan**

Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak “Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa” programaren laugarren edizioa jarri du abian, Montehermoso kulturunearekin batera. Horren bidez, giza eskubideekin lotutako arloren batean lan egiten duen hiriko gizarte erakunde bat eta artista bat edo batzuk sorkuntza prozesu batean elkartzen dira.

Aurten errefuxiatuen egoerari erreparatuko zaio, “Babesik gabe-Sin refugio” sorkuntza artistikoko proiektuaren bidez, zeinean CEAR Euskadi (Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea) eta Iñaki Larrimbe eta Rubén Díaz de Corcuera artista gasteiztarrak aritu baitira elkarlanean.

Deialdiaren helburua da munduan giza eskubideak zertan diren gogoeta eta azterketa kritikoa egiteko marko bat sortzea, eta horretarako kultura eta arte adierazpide garaikideak erabiltzea. *“Kontzientziak kitzikatzea da asmoa, arteak sortzen dituen emozioak eta sentipenak baliatuz. Babesik Gabe proiektuak ondo baino hobeto islatzen du espiritu hori, CEAR Euskadik parte hartzen baitu, hau da, errefuxiatuen eskubideen defentsan ibilbide luzea eta sendoa egin duen erakundeak, eta errefuxiatu estatusa izapidetzen ari diren pertsonen arreta integrala ematen dienak, eta zalantzarik gabe horri erantzuten dio Iñaki Larrimbe eta Rubén Díaz de Corcueraekin abiatu duten sortze-prozesuak ere”*, nabarmendu du Lankidetzako zinegotzi Jaione Aguirrek.

Herritarrekin batera lantzen diren edukiak abenduan egitekoa den erakusketan sartuko dira.

# **Artistas gasteizarras, CEAR y Ayuntamiento invitan a la ciudadanía a analizar desde la creatividad la situación de las personas refugiadas**

**Montehermoso acogerá el proyecto participativo Babesik Gabe-Sin Refugio que culminará con una exposición en el mes de diciembre**

El servicio de Cooperación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en colaboración con el centro cultural Montehermoso han puesto en marcha la cuarta edición del programa “Derechos humanos y creación artística”, que une en un proceso de creación a una organización social de la ciudad que trabaja en una determinada problemática de derechos humanos y uno o varios artistas.

Este año será la situación de las personas refugiadas la que tomará la palabra, de la mano de la iniciativa Babesik gabe – Sin refugio, un proyecto de creación artística en que colaboran CEAR Euskadi, el Comité de Ayuda al Refugiado y los artistas vitorianos Iñaki Larrimbe y Rubén Díaz de Corcuera.

El objetivo de la convocatoria es generar un marco de reflexión y análisis crítico de la situación actual de los derechos humanos en el mundo, pero hacerlo mediante prácticas culturales y artísticas contemporáneas, en sus múltiples expresiones. *“Se pretende remover conciencias pero hacerlo desde las emociones y sentimientos que genera el arte. Babesik Gabe es un proyecto que recoge perfectamente ese espíritu ya que en él colabora CEAR Euskadi, una organización con una larga y sólida trayectoria de defensa de los derechos de las personas refugiadas y que se dedica también a la atención integral a las personas que están en tramitando su estatus de refugiado y sin duda el proceso de creación que ha puesto en marcha con Iñaki Larrimbe y Rubén Díaz de Corcuera”* ha destacado la concejala de Cooperación Jaione Aguirre.

El proyecto concluirá con una exposición, el próximo mes de diciembre, en la que se incluirán contenidos trabajados ahora de forma participada con la ciudadanía.